

1. KANALAK

Bezeroei enpresaren produktu eta zerbitzuak aurkezten dizkiegu, esaterako, enpresaren balio proposamena baloratzen laguntzen duena eta bezeroek produktu eta zerbitzu zehatzak erostea ahalbidetzen dugu. Gainera, helburu bezela, bezeroei, produktuaren balio proposamena eskaintzea eta salmenta ondorengo zerbitzua erakusten dugu.

Gure kanalek hiru helburu ezberdin dituzte (komunikatu, banatu eta saldu) eta beraz, helburu bakoitzerako kanal berezi bat sortu dugu (komunikazio-kanala, banaketa-kanala eta salmenta-kanala), edo sortu ditugun kanalek (gure sareetan) hiru helburuak betzen dituzte. Zuzeneko kanalak erabiliko ditugu, ez dugulako beste denda baten bitartez salduko, hau da, internet bidez erosi daiteke.



Gure produktua bezeroengana helarazteko, publizitatea, sare sozialak (Instagram, Twitter, Facebook eta TikTok) eta web orria erabiliko ditugu. Bertan, hainbat *influencer*-ekin kolaborazioak egingo ditugu ahalik eta jende gehienera iristeko, baita ere, Instagrameko historiak igoko ditugu, eta azkenik TikTok-ak igoko ditugu gure kontura, beste hainbat gauzen artean.